

# EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia  
EUSKARA

Lehen Hezkuntzako 4. maila  
1. proba

Egileak: Ainhoa Imaz  
Aitor Aurrekoetxea

ibaizabal



**Koadernoak irakurtzeko bakarrik da.  
Galdera guztiak  
ERANTZUTEKO ORRIETAN  
erantzun behar dituzu.**

**Ez idatzi ezer  
koadernoan.**

## ENTZUMENA



## OSPE GOSE

Orain, irratiko elkarrizketa bat bi aldiz entzungo duzu.

1. Entzun aurretik, irakurri galderak.
2. Entzun testua, eta idatzi galdera bakoitzaren erantzuna (A, B, C edo D) erantzunen orrian.

01

Zertaz hitz egiten da elkarrizketan?

- A. Euskal zinemagintzaz.
- B. Film baterako pertsonaiak bilatzeko antolatu duten casting batez.
- C. Umeen aisialdiaz.
- D. Telebistan ospetsu egin diren hurrez.

02

Nor da Arantza Ibarra?

- A. Euskal Telebistako aurkezlea.
- B. Donostian urtero casting-ak antolatu ohi dituen emakumea.
- C. *Zigortzaileak* filmeko zuzendaria.
- D. Eskola bateko zuzendaria.

03

Zergatik daude harrিতuta casting-aren antolatzaileak?

- A. Irakasleek behartuta aurkezten direlako umeak.
- B. Gurasoek behartuta aurkezten direlako umeak.
- C. Ume gutxi aurkeztu direlako.
- D. Ume asko aurkeztu direlako.

04

**Zenbat ume behar dituzte casting-erako?**

- A. 5 ume, filmeko protagonistak izateko.
- B. 9-10 ume protagonistak izateko, eta beste hainbat *extra* gisa.
- C. 2 ume, filmeko zuzendari izateko.
- D. 9-10 ume protagonistak izateko. *Extrarik* ez dute behar.

05

**Zer adineko haurrak behar dituzte?**

- A. Adin guztietako haurrak.
- B. 9-12 urte bitarteko haurrak.
- C. 10-12 urte bitarteko haurrak.
- D. Oso ume txikiak.

06

**Zergatik joaten dira ume gehienak casting-etara?**

- A. Antzerkia gustatzen zaielako.
- B. Opariak banatzen dituztelako.
- C. Gurasoek seme-alabak telebistan ikusi nahi dituztelako.
- D. Entretenigarriak direlako.

07

**Aukeratu entzun duzun testurako beste izenburu bat.**

- A. *Zigortzaileak*.
- B. Telebistako programen gorabeherak.
- C. Casting-ak eta ospea.
- D. Arantza Ibarra filmeko zuzendaria eta gidoigilea.

## IRAKURMENA



Irakurri testua, eta erantzun 8-14 bitarteko galderei erantzun orrian.

**AHARRAUSI EGIN ETA ESNATU**

Goiz esnatu eta eskolara joan behar? Pentsatze hutsak aharrausika jartzen du bat baino gehiago. Eta, behin pentsatzen hasita, igual nahiko duzu jakin zergatik egiten dugun aharrausi horrelakoetan, edo logale garenean...

Zientzialariak ondorio honetara iritsi dira: garuna freskatzeko eta hara doan odoljariora areagotzeko egiten dugu aharrausi. Hainbat esperimentu egin dituzte hori frogatzeko. Batean, boluntarioei film bat ikusarazi zieten. Batzuek poltsa hotz bat jarri behar zuten kopetan, eta beste batzuek, berriz, beroa. Bada, poltsa hotza zutenek ez zuten aharrausirik egin, baina besteek bai. Alegia, garuna fresko badago, ez da gogorik izaten aharrausirik egiteko.

Beste esperimentu batean, batzuei arnasa ahotik hartzeko eskatu zieten, eta besteei sudurretik. Eta ikusi zuten sudurretik arnasten zutenek ez zutela aharrausirik egiten. Nonbait, arnasa sudurretik hartzen denean, sudurreko odol hodiekin odol freskoa bidaltzen dute garunera, baina ez da hori gertatzen ahotik arnastuz gero.

Ikertzaileen ustez, garunak hobeto egiten du lan fresko dagoenean, eta aharrausi egitea garuna pizteko edo freskatzeko modu bat da. Beraz, aharrausi egiten duzunean, lo hartzeko puntuan zaudela uste duzu agian, baina, berez, gorputza zure garuna esnatzen ari da.

Ana GALARRAGA (2009/08/14)  
www.zernola.net (egokitua)

08

Irakurri duzun testua...

- A. ...elkarrizketa da.
- B. ...nobela baten zatia da.
- C. ...azalpena da.
- D. ...deskribapena da.

09

**Zergatik egiten dugu aharrausi?**

- A. Logale garelako.
- B. Ez dugulako goiz esnatu nahi eskolara joateko.
- C. Garuna freskatzeko.
- D. Garunera doan odoljariora gutxitzeko.

09

**Zer egin zuten zientzialariek esperimentuetako batean?**

- A. Boluntarioei pelikula bat ikusarazi zieten, kopetan poltsa hotza edota beroa jarrita.
- B. Boluntarioei film bat ikusarazi zieten, poltsa hotz baten gainean eserita.
- C. Sarri aharrausi egiten zuten neska-mutilei poltsa hotzak jarri zizkieten kopetan.
- D. Sarri aharrausi egiten zuten neska-mutilei poltsa beroak jarri zizkieten kopetan.

09

**Zein izan zen esperimentuaren ondorioa?**

- A. Garuna bero daukagunean egiten dugu aharrausi.
- B. Ez zuten ondoriorik atera.
- C. Garuna fresko edo hotz dagoenean, ez dugu aharrausi egiten.
- D. Aharrausi egitean, garuna freskatu edo piztu egiten dugu.

09

**Zer egin zieten boluntarioei beste esperimentuan?**

- A. Arnasa sudurretik hartuarazi.
- B. Arnasa ahotik hartuarazi.
- C. Arnasa hartzean aharrausi eginarazi.
- D. Arnasa hartuarazi, batzuei sudurretik eta besteei ahotik.

13

EGIA ALA FALTSUA? Markatu "X" batez laukitxo egokia, adibidean bezala:

	EGIA	FALTSUA
0. Zientzialariek aharrausi zergatik egiten dugun aztertu dute.	X	
1. Eguna lotan pasatzen dutenek egiten dute aharrausi.		
2. Arnasa sudurretik hartutakoan ez dugu aharrausi egiten.		
3. Arnasa ahotik hartutakoan ez dugu aharrausi egiten.		
4. Aharrausi egitea osasun txarraren ondorio da.		

*Idatzi erantzuteko orrietan*

14

Zer beste izenburu jarriko zenioke testuari?

- A. Esperimentuak.
- B. Zergatik egiten dugu aharrausi?
- C. Aharrausika gau eta egun.
- D. Beti logale.

## IDAZMENA

15



## IDATZI IRITZIA

Gaur laugarren mailakoak zinemara joan zarete, eta pozez zoratzen irten zarete. Ikastetxera itzultakoan, irakasleak filmari buruzko iritzia idazteko eskatu dizue, eskolako aldizkarirako.

Honako gidoitxo honi jarrai diezaiokezue:

- Azaldu filmaren izenburua, generoa (umorezkoa, abenturazkoa...), aktore nagusiak...
- Kontatu labur argumentua.
- Eman iritzia (zer gustatu zaizuen eta zer ez), eta arrazoitu.

**Gogoratu testuak, gutxienez, 60 hitz izan beharko dituela.**